


UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2018/03/06) Hurrengo saioa: 2018/03/20	Herri Batzarra	Martxoaren 17ko Herri Batzarreko gai zerrenda adostu da, bertako gai batzuk jorratu dira eta aurkezpena taxutzen ere (PPT-etan)	
	Emakumeen eguna	Aitzindariak proiektuaren materiala bertan izanda, nork eta noiz kokatu erabaki dugu.	Emakumeen eguneko bazkaria, erakusketa, bideo emanaldi eta abarren balorazioa egin. Materiala biltzeko ardura partekatu.
	Formazio saioak	Herritarrentzat formazio saioak antolatzeko proposamena jorratu da: suhiltzaileena bata, lehen sorospen ikastaroa bigarrena.	Suhiltzaileekin eta Gurutze Gorriarekin harremanetan jarri, datak finkatu,...
	Garraio publikoa	Garraio publikoaren ordutegia gure beharretara hobeto egokitzeko aukerak aztertzen hasi (Ormaiztegiko loturak: tren, autobusa)	Proposamena garatzen jarraitu

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2018/03/13) Hurrengo saioa: 2018/03/27	Euskara ikastaroa	Herrian inkesta bat gauzatzea adostu da ea euskara ikasteko talde bat sortzeko adina jende dagoen jakiteko.	komunikazio lan taldeari eman zaio inkesta garatzeko ardura
	Auzolana	- Apirilak 14ean egitea behin behinean adosten da. - Proposatutako lanak: <ul style="list-style-type: none">• Baserri bideetako herriko logoak aldatu.• Itsusturriko hesia pintatu eta lorategian tela jarri.• Eliz eta kanposantuko eskulekuak pintatu (aldatzea adosten ez bada).• Zuntz optikoaren kontra dauden adarrak moztu.• Sakristia azpia garbitu eta txukundu.• Iburretik hasi eta itsasora doan herribide zaharra garbitu.• Zehazturik dauden herribide tartekak hesitu.	Taldeak antolatzen hasi eta talde arduradunak aukeratu.



ITSASOKO
UDALA
(GIPUZKOA)

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2018/ 03/10-14) Hurrengo saioa: 2018/03/28	AHT- Iruña-Ezkio (H alternatiba)	Abiadura Handiko Trenaren trazatu hau aztertzen aritu gara (ofizialki honen berririk iritsi ez zaigun arren). V alternatiba baztertuko balitz (Iruña-Gasteiz) H alternatiba Itsasoko lurretan pasako litzateke eta eragin zuzena Zabalegi, Errazti-Atsusain eta Ibur inguruan izango luke. Alegazioak aurkezteko epea martxoaren 16an amaitzen da.	
	2017ko aurrekontuen azterketarekin amaitu	III. kapitulutik aurrerako aurrekontuetako partida bakoitza erreparasatu da, zenbat diru aurreikusi zen eta zenbat gastatu den ikusiz	Herri Batzarrerako prestatu
	2018ko aurrekontuetan doikuntzak	2017an gastatu denaren arabera 2018rako aurreikuspenak egin dira	Herri Batzarrerako prestatu